

2020-11-24ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2020ko azaroaren 24an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Gorka Murua Macuso izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz.

-Azaldu ez diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra eta Leticia Aristi Oria.

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesus Leunda Gurruchaga.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramón Epelde Irizar, María Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Lehenengo aipatu behar da Koronavirus -Covid 19- izurritearen alarma egoera ikusita eta korporatiboen eta hiritarren osasuna babesteko, Alkatearen Dekretuaren bidez neurri batzuk hartu direla bilera hau egiteko eta Pleno Aretoa txikia dela ikusita, hauek izango dira hartutako neurriak:

1.- Bakarrik bileran zuzenean parte hartuko dute korporatibo hauek: Alkatea, EH Bildu udal taldearen bozeramailea, EAJ/PNV udal taldearen bozeramailea eta udaleko idazkaria.

2.- Beste zinegotziek, bere botoa delegatuko dute bere taldearen bozeramailean idatzi baten bidez. Bozeramaile bakoitzak hainbat boto izango ditu delegazioaren arabera.

Ondorioz:

-Leticia Aristi Oria, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Iturbe Saizar, EH Bildu udal taldearen zinegotziek beren botoa Noelia Lataburu Ortiz zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago izango ditu: 4 boto.

-Maria Cristina Santos San Sebastian, Jose Ramón Epelde Irizar eta Marta Castrillo Iturralde, EAJ/PNV udal taldearen zinegotziek beren botoa Ana Jesús Leunda Gurruchaga zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta bi boto gehiago ditu: 4 boto.

3.- Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko

partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONATZEA (2020-10-27).

Udalbatzak, aho batez, 2020ko urriaren 27ko ohiko bilkuraren akta onartu du.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020/217 DEKRETUTIK 2020/238 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2020/217 dekretutik 2020/238 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

IRURAKO UDALERRIKO IRISGARRITASUN PLAN BERRIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak adierazi du Irurako Udalerriko Irisgarritasun Plana amaitutzat eman zela eta sinatu zen kontratua Plana eguneratzeko Geotech Gestión Espacial S.L. enpresarekin.

Plana idatzita dago 20/1997 legea, abenduaren 4ko, Irisgarritasun Sustatzeko-aren arabera eta komenigarria da jende aurren jartzea hiritarrek aztertzeko eta bere iradokizunak edo erreklamazioak aurkezteko.

Halaber, gogorarazi du, Irisgarritasun planaren baitan bi dirulaguntza eskatu zirela, bata Irisgarritasun plan hau bera eguneratzeko eta bestea, Peio Arrese guneko obrarako.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Udal aparejadoreari kontsultatu edo dokumentua bera nahi badute, eskuragarri dagoela adierazi dio Ana Leunda zinegotziari.

Gorka alkateak gaineratzen du, Geotech enpresak eginiko txostenean hainbat proposamen adierazten dituztela eta lehentasunak ezarri beharko direla, aurrera eraman behar badira.

Ana Leunda EAJko zinegotziak adierazi du, batzorde batean hitz egin dela martxan dagoela, baina bere taldeak, dokumentua ez daukala berretsi du.

Idazkariak adierazi du, dokumentu tekniko bat dela, nahiz eta arauak ez duen behartzen, Udal batzuek dokumentua jendaurrean jarri dute, herritar zein elkarteek, nolabaiteko ekarpenik edo alegaziorik egin nahiko balute.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA:

1º.-Irurako Irisgarritasun Plana (2020 eguneratzea) hasierako onarpena ematea izeneko dokumentuari.

2º.-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratzea, hogeita hamar eguneko epean aztertzeko eta alegazioak edo iradokizunak aurkezteko herritarren edo elkarten aldetik.

Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, Plana behin betiko onartutzat emango da.

LAUGARREN GAIA

2020-2021 IKASTURTEKO 2 URTEKO GELAKO DIRULAGUNTZA EMATEKO IRURAKO IKASTOLAREKIN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Ikastolak bi urteko gelarako dirulaguntza eskatu ohi du urtero. Hori dela eta, Udalak hitzarmen bat sinatuko du Irurako Ikastolarekin, azken urteetan bezala.

Ana Leunda zinegotziak adierazi du, helarazitako dokumentuetan diru kopurua ez dela azaltzen. Bai ikusi dute 2 urteko gelako 9 haurren matrikulazio berria.

Idazkariak eta Alkateak adierazi dute diru kopurua urteroko berbera dela.

Idazkariak gaineratu du, urtero hitzarmen eredu bera sinatzen dela, eta aurten ere 3.606,00 €

Anak, galdetzen du, dirulaguntza zeren baitan ematen den, ea berdina den, 9 haur edo 20 matrikulatu.

Alkateak erantzun dio, azken finean, Udalak laguntzen duen kontzeptua gela osotasunean hartuta da, hau da irakaslearen figura; ez haur kopurua.

Idazkariak gaineratu du, aurreko ikasturtean 15 haur izan zirela.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

Lehena.- Aipatutako 2020/2021 ikasturterako hitzarmena ontzat ematea eta 3.600 euroko diru laguntza ematea, eta Gorka Murua Macuso Irurako Udaleko alkate-lehendakariari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Diru-kopurua jaso aurretik, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztagiria aurkeztea
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztea.
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

BOSGARREN GAIA

2020-2021 IKASTURTEKO ESKOLA KIROLA KUDEATZEKO IRURAKO IKASTOLAREKIN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udala eta Irurako Ikastolaren artean lankidetzaz hitzarmena onartu nahi da, 2020-2021eko eskola kirola gauzatzeko eta baita 2020-2021 igeriketa kanpainarako ere.

Udalaren ardura, gastuak finantzatzeko dirulaguntza ematea eta udal kirol instalazioak uztea izango da, helburu horretarako.

Alkateak dio, Ikastolari eskola kirola gauzatzeko Aldundiak ematen dion kopuru bera ematea dela helburu batetik, eta bestetik, martxan ez egon arren, igeriketa ikastaroetarako 7€ko dirulaguntza ikasleko.

Alkateak dio, berdintasun klausula ez dagoela, eta eranstea falta dela 16. puntuan.

Irurako Ikastolaren ardura egituraren diseinua eta gauzatzea izango da.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau erabaki du:

ERABAKIA

1º.- Helburu horrekin lankidetzaz hitzarmena onartu eta sinatzea.

2º.- Gorka Murua Macuso jaunari, Irurako Udaleko Alkatea, baimena ematea Udalaren izenean, hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

HITZARMENA: “Iruran, bi mila eta hogeiko azaroaren 24an

Alderdi batean, Gorka Murua Makuso, Irurako alkatea, udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, 2020ko azaroaren 28ko udalbatzak onartutako erabakiarekin bat, eta haren ondoan ni, Udaleko Idazkaria, egintza honen fede ematen duena.

Beste alderdi batean, Hasier De Los Rios Soraluze, adin nagusikoa, eta jakinarazpenetako helbidea Zilar Kalea 1ean duena, Irurako Ikastola koop. Elk. ordezkatzuz.

AZALPENA

Indarrean dagoen arautegiaren arabera (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena), Udal administrazioei dagokie foru organoek egin eta onartutako eskola kirolari buruzko programak aurrera eramaten koordinatuki laguntzea.

Eskola kirolari buruzko 2008ko uztailaren 1eko 125/2008 dekretuaren arabera, ikastetxeak dira eskola kirola egiteko oinarrizko lekuak eta ikasleei kirola egiteko bidea ireki behar dienak, antolaketa, heziketa eta administrazioaren arduradun izanez.

Arautegi horri jarraituz, Irurako Udalak eta Irurako Ikastola Koop. Elk.-k interesgarritzat jotzen dute ikastetxeak parte hartzea eskola kirola begiratu eta kudeatzeko egiturak jarri eta gauzaten.

KLAUSULAK

1.-Irurako Ikastola kooperatiba Elkarteak bere gain hartzen du eskola kirola aurrera eramateko behar den egitura garatzeko konpromisoa, jarduera horiek eskatzen dituzten koordinazio, teknika eta heziketa lanak egiteko beharrezkoa izango dena.

2.- Egitura horren barruan eskola kiroleko koordinatzailearen figura egongo da. Eta ikastola izango da koordinatzaile horren eta behar diren eskola kiroleko teknikarien eta zuzendaritzaren, irakasleen eta gurasoen ordezkarien arteko harremanak zehaztuko dituen, Kirol jarduera horiek ikastetxearen heziketa proiektuan txertatuta gera daitezen.

3.- Kirol jardueretan lan egingo duten guztiak elebidunak izan daitezela bermatu behar du ikastolak, eta bere eskuan dagoen guztia egingo du eskola kirolean ohizko hizkuntza euskara izan dadin.

4.- Ikastolak egingo du ikasturte bakoitzean eskola kirolean gauzatu diren jardueren programa eta programa horretan jarduera guztiak sartuko ditu (ikastolan bertan edo klub batean). Jarduera programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programak finkatutako jarraibideak, udal Kirol politikaren interesak eta ikastolaren beraren helburuak kontuan hartuz egingo da.

5.- Ikastolak heziketa eta jolas lehiaketarako kirol anitzeko programa egin eta benjamin eta alebinen kategorietan, aurrera eramateko konpromisoa hartzen du.

6.- Ikastetxeak eskola kiroleko heziketa helburuak betetzen direla zaindu behar du, ikasle guztiei dauden jardueretan, helburuak lortzeko moduko baldintzetan, parte hartzeko bidea emanaz.

7.- Udalak eskola kiroleko jarduerak gauzatzeko herrian beharko liratekeen Kirol instalazioak jarriko ditu.

8.- Ikastolak herriko Kirol klubetako laguntza eskatuko du, ikasle gazteenak hasi behar dutenean kirola egiten kirol klub horietako teknikariek parte har dezaten, ikastolak finkatutako heziketa helburuei jarraituz. Era berean, ikastolak bideak ireki behar ditu, adin jakin batzuetan eta kirol modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, ikasleek kirola egin dezaten, bai errendimendu lehiaketetan bai jolasekoetan, eskola urteak amaitu ondoren.

9.-Ikastola izango da egitura hori finantzatzeko behar diren baliabideak erabakiko dituen, hor sartuko direlarik parte-hartzaileen ekarpenak, ikastolaren titularrarenak, gurasoen elkartearenak, herri diru-laguntzak edo egokitzat hartzen duen bestelako edozein.

10.- Irurako Udalak eskola kiroleko jarduerak kudeatzeko, ikastolak eta udalak osatutako eskola kiroleko batzordea eratu eta aurrera ateratzeko konpromisoa hartzen du, horretarako behar diren baliabideak jarriaz.

11.-Udalak herriko Kirol instalazioak eskolako kiroleko jardueretan erabiltzen uzteko konpromisoa hartzen dute, udalerriko kirol instalazio guztien erabilera koordinatu baten barruan.

Frontoiaren kasuan, astean zehar, arratsaldetan, 18:30arteko jardueretan, frontoiaren zati bat herritarrek erabiltzeko utzi beharko du ikastolak.

12.- Irurako Udalak emango dio Irurako Ikastolari, eskola-kirolaren egiturak 2020-2021 ikasturtean zehar eragindako gastuei aurre egiten laguntzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak helburu horretarako udalari ematen dion toki erakundeei eman beharreko diru-laguntza kontzeptuan ematen diona eta beste hainbeste, aipatu gastuei aurre egiteko.

13.-Gainera, Irurako Udalak emango dio Irurako Ikastolari, igeriketa kanpainak 2020-2021 ikasturtean eragindako gastuari aurre egiteko, kanpainan parte hartutako ume bakoitzeko 7€ko diru-laguntza, beti ere ikastolak kanpainak eragindako informazioa udalean aurkeztu ondoren.

14.- Diru ekarpena finantzatuko da 2020ko Aurrekontuaren partida honetatik:
1.0000.481.326.0000.2021

15.-Hitzarmena sinatu ondoren, ikastolak ondorengo agiri hauek aurkeztu behar ditu:

- a) Egituraren diseinua: helburuak, edukia eta antolakuntza.
- b) Ikastolaren eskola kiroleko jardueren urteko programa.
- c) Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru-laguntza zuritzeko eskatzen duen Memoria eskola Kirola 2020-2021 formularioa behar bezala bete eta bertan agertzen diren datuak egiaztatzekeo agiriak.
- d) Kirol klubekin lankidetzaz hitzarmenak izenpetu baditu, hitzarmen horien kopia.
- e)Gainera, hurrengo agiriak ere aurkeztu behar ditu:
 - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren kuotak egunean dituztela egiaztatuko dituen agiriak.
 - Aitortza arduratsua, betetzen dituela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 13. Artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko baldintzak.

16.- Hala ere, bete behar ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruz otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 25. artikuluan xedatutako baldintzak, kirol praktikari buruzkoak.

17.- Hitzarmen honen klausulak interpretatzeko orduan gerta daitezkeen zalantzak udalak erabakiko ditu.

18.-Hitzarmen honetako klausulak ez betetzeak hitzarmena desegitea ekarriko du.

Nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut, eta bi alderdiak ados daudela adierazteko, hitzarmen hau izenpetu dute nirekin batera, goian adierazitako egun eta lekuan. “

SEIGARREN GAIA

AMETSA PILOTA ELKARTEAREKIN HITZARMENA ONARTZEA DIRULAGUNTZA EMATEKO, HALA BADAGOKIO.

Hitzarmena aurkeztu da Ametsa Pilota Elkartearen eta Irurako Udalaren artean, 2020-2021 ikasturterako buruzko programak aurrera eramateko.

Alkateak dio, iazko urtetik hona ez dagoela aldaketarik, berdintasun klausula txertatzea baino.

Idazkariak jakinarazten du 6.000€ko diru kopuruz lagunduko dela.

Hori ikusita Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1º.- Helburu horrekin lankidetzaz hitzarmena onartu eta sinatzea.

2º.- Gorka Murua Macuso jaunari, Irurako Udaleko Alkatea, baimena ematea Udalaren izenean, hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

HITZARMENA: “Iruran, 2020ko abenduaren 30an

BILDURIK

Alde batetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko Alkate-lehendakaria, Irurako Udalaren Osoko Bilkurak 2020ko azaroaren 24an hartutako erabakiz, ekintza honetan udalaren izen eta ordezkari zapean aritzeko egokiro baimendua izan dena. Eta Miguel A. Arrizabalaga Brusin Irurako Udaleko idazkari kontu-hartzailea fedea emateko 2018ko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2 artikulua araberak.

Bestetik, José Ignacio Iturbe Saizar, N.A.N.15.996.004 X zenbakia duena, Ametsa Pilota Elkarteak ordezkaria, IFK: G20416079 eta bere helbidea Zilar kalea z/g (Irura) elkarte honen izen eta ordezkari izan.

Biak ekintza hau burutzeko ahalmen osoa onartzen dute.

AURREKARIAK

Lehenak. Iruran Ametsa Trinketea eraiki zen, xare kirola herrian erroturik zegoelako eta herritarrek, kirolaz haratago kultur ondare ez-materialtzat hartzen dutelako xare jokoa.

Hori dela eta, ondarea kontserbatzea udal erakundearen zeregina delakoan, udal honek, ondare hori ondorengo herritarrei galdu gabe helarazteko asmoarekin, herriko haurrek xarez jolasten ikastea bermatu nahi du.

Bigarrena. Badira urte batzuk, Ametsa Pilota elkarteak, xareko eskolak ematen dizkiela herriko haur eta gazteei, Ametsa trinketean urritik ekainerako ikasturte osoan zehar.

Hirugarrena. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 17.1 artikulua araberak, udalerrien eskumen propioen artean hau dago: “kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea”.

Laugarrena. Jose Ignacio Iturbe Jaunak adierazten du betetzen dutela, bai berak eta Ametsa Pilota Elkarteak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 3872003 Lege Orokorraren 13. Artikuluan xedatutako baldintzak.

Bostgarrena. Honako hitzarmen hau, Irurako Udalak osoko bilkura honetan onartuko da.

Hori dela eta, bi aldeek, honako hitzarmen hau onartzea adosten dute, bere baitan ondorengo klausulak dituelarik:

KLAUSULAK

LEHENA.- Ametsa Pilota Elkartek, (aurrerantzean APEL) konpromisoa hartzen du 2020-2021 ikasturtean xare eskolak emateko, hala eskatzen duten eta Irurako udalerrri honetan bizi diren 5 urtetik gorako haur eta gazteei. Ekintza hori burutzeko behar diren kirol-begiraleak izendatu eta beharrezkoak diren gainontzeko ekintza-bideak ere bere gain hartu beharko dituelarik.

BIGARRENA.- Udal honek xare eskolek eragindako gastuak finantzatzen laguntzeko 6.000€ emango dizkio APEL-ri.

HIRUGARRENA.- Udal honek aipatutako zenbatekoaren %50a ordainduko dio APEL-i ikasturtea hasitakoan eta gainerako %50a, gastuen eta sarreraren balantzea aurkeztutakoan.

LAUGARRENA.- APEL-k ikasturte amaieran, parte-hartze ziurtagiria igorriko die 2020-2021 ikasturtean xare eskolak jasotzen aritutako ikasle guztiei.

BOSTGARRENA.- APEL-k, trinketean xare partidak ikusteko aukera bermatzeko, gutxienez txapelketa bat antolatuko du ikasturtean zehar.

SEIGARRENA.- APEL-k, udalari jakinarazi beharko dio xare-eskoletarako ohiko ordutegitik kanpora trinketeko instalazioak erabili behar dituenean.

ZAZPIGARRENA.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK: APEL-k, udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatu du. Beraz, eskolak ematerakoan herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz gauzatuko ditu. Eskolak eman ahal izateko herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskara hutsez emango ditu ezagutzera. Salbuespen modura, elebitan argitaratu ahal izango ditu, betiere, euskara lehenetsita eta udalak alde aurretik adostasuna emanda. Ametsa Pilota Elkarteke ordezkariak udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte.

ZORTZIGARRENA.-

Halaber, bete beharko dituzte Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 25. artikuluan xedatutako baldintzak eta haien artean:

APEL-k, genero-ikuspegia kontutan hartu beharko du ondorengoak betez:

-Ikastaroa sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

-Bermatu beharko du, ikasle guztiak aukera berdina edukitzea entrenatzeko eta partidak jokatzeke sexuaren araberako bereizketarik

egin gabe. Gainera, ez du onartuko ikasleen arteko genero bereizketarik.

-Ez du sortuko sexuagatiko bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

BEDERATZIGARRENA.-Udal honek APEL-i lagako dizkio, trinketeko kantxa, bi aldeek adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko, beheko solairuan dagoen armairua biltegi modura erabiltzeko eta bigarren solairuan dagoen bulegoa, bere ekipamenduekin, adierazitako ekintza burutzen duen bitartean.

HAMARGARRENA.- APEL-k xare-eskolak dituen ordu berean, udal honek trinketeko kantxa beharko balu, kultura edo kirol programazioko ekintza bat burutzeko, APEL-i jakinarazi beharko dio aldez aurretik eta ordu horretako xare-eskola beste ordu batean emango da.

HAMAIKAGARRENA.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztatzea.
- b) Legearen 13. Artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.
- d) Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.
- e) Jardueraren memoria eta gastuen dokumentazioa.

HAMABIGARRENA.- APEL-k ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea erakarriko du, eta badagokio, kontuan harturik zertan ez den betetzen eta hitzarmen honen xedea zein den, udalari guztia edo zati bat itzuli beharko dio.

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmen honetan xedatuta ez dagoen edozertarako, azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta Irurako Udaleko diru-laguntzei buruzko udal ordenantza bete behar dira.

Eta adostasunaren adierazgarri bi aldeek sinatzen dute ale bikoitzean eta ondorio bakarrerako igortzen den agiri hau, aleetako bat APEL-i ematen zaiolarik, bestea gorporazio honek jasoz, guztiaren berri nik, idazkariak fede ematen dudalarik, adierazitako data eta lekuan.”

ZAZPIGARREN GAIA

AZAROAREN 25-ERAKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA DELA ETA ADIERAZPENARI BURUZ EH BILDU ETA EAJ/PNV-K AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gorka alkateak, EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa aurkeztu du, aurretik talde denek irakurrita daukatela eta, zuzenean bozkatzea proposatzen du, ondoren EAJk aurkeztutako irakurri eta bozkatzeko.

“AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azaroaren 25a, emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro, guztiz onartezina dela esateko eguna da; gainera, indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzeko ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizaziorik izango emakume izate hutsagatik emakumeak hiltzen eta erasotzen jarraitzen den bitartean aldarrikatzeko eguna. Horregatik, egun honetan erakunde publikoak, borroka horretan dugun lehentasunezko eragile-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu.

Beraz, Irurako Udalaren EH Bilduko taldeak honako adierazpen instituzional hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartzeko.

ZIOA:

Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna" dela-eta, Irurako Udal honek, bere egiten du gure lurralde, herrialde eta herriak, indarkeria matxistatik gabeko gune gisa eraikitze ardurak. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betiketuen duen normalizazioan eraginez, orden sozial patriarkala ezinbestez aldatzeko eta, emakumeak libre biziko diren justizian eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez.

Aparteko une batean bizi gara, non osasun-egoerak foku guztiak bereganatu dituen eta gure bizimoduan eragin handia izan den. Egoera zaurgarria dauden pertsonak bereziki kaltetuak izan dira, horien artean indarkeria matxistaren biktimak. Konfinamenduan emakumeek eutsi duten egoera modu bortitza azaleratuko da gero, zantzu guztien arabera. Alde batetik, zerbitzu askok funtzionamendua aldatu dute, beste batzuk gelditu egin dira eta beste batzuek baliabideak desbideratu dituzte, zuzenean edo zeharka. Bestetik, eta aurreko krisietan gertatu zen bezala, jendarte-estres handiagoak eta jendarte-gehiengo bizitzaren prekaritate orokorrak erasotzaileen indarkeria areagotzea ekarriko du, eta emakumeek autonomia gutxiago izango dute erabakiak hartzeko.

Konfinamenduak, alde batetik, zerbitzuen prestazioan .alterazio bat eragin du, eta, bestetik, ondorio psikologikoak eta bestelakoak eragin ditzake emakume eta haurren, haien prozesuak eten egin baitira, eta, aldi berean, etxean indarkeria-mota eta -adierazpen desberdinak jasan baitituzte. Orain, lehentasunezkoa da

jakitea, indarkeria matxistari dagokionez, nola eragiten dien krisi honek emakumeei, haien seme-alabei, eta sexu-genero sistemaren aurreko disidenteei, zer modu berri sortu diren, zer eredu aldatu diren, zer adierazpen areagotu diren... Litekeena da indarkeria matxistak beste bazterkeria- edo indarkeria-elementu batzuekin elkarreragiten duen kasu konplexuagoei erantzuteko beharra areagotzea. Izan ere, bikotekideek, bikotekide ohiek edo beste gizon batzuek emakumeengan zuzenean eragindako indarkeriaz gain, krisi honetan beste indarkeria-mota batzuk areagotuko dira, hala nola ekonomikoa. Erakunde gisa, gure betebeharra da emakume eta seme-alaba guztiek beren egoerarako arreta egokiena jasotzen dutela bermatzea.

Krisia ezin da aitzakia izan aurrekontuak izozteko edo murrizteko. Indarkeria matxistaren pandemiak lehentasuna izaten jarraitu behar du, eta, beraz, prebentzioa lantzen jarraitzeko, arreta egungo egoerara egokitzeko eta erreparazioa alde batera ez uzteko beharrezkoak diren baliabide guztiak konprometitu behar ditugu. Arazoaren sustraian eragina izango duten ekimen integralak abiaraziz bakarrik lortu ahalko da arazoa desagerrarazten aurrera egitea.

Eta, beti bezala, mugimendu eta aditu feministen eskutik egin behar dugu. Krisiaren lehen unetik ahotza altxatu duten horiek, konfinamenduan gatibu hartuta arrisku-egoeran zeuden emakumeei eta euren seme-alabei arreta emateko eskatu dute, eta behin deskonfinamendua iritsitakoan emakumeengan izango zituen ondorio bereziak begien bistatik ez galtzeko.

Gogoan dugu, halaber, aurten Euskal Herrian hil dituzten 4 emakumeak, denak konfinamenduaren hilabeteetan. Lanean jarraitu behar dugu, denok, horrelakorik berriro gerta ez dadin. Errealitate sozial larria da, denoi interpelatzen gaituena, ezin dugu eta ez dugu beste alde batera begiratu behar. Erakundeok erantzukizun berezia dugu horretan.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

PROPOSAMENA:

- 1.- Irurako Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.
- 2.- Irurako Udal honek konpromisoa hartzen du COVID19aren krisiak indarkeria matxistetan izan ditzakeen eraginak aztertzeko, aldundiekin, Berdintasunerako Nafarroako institutuarekin/Emakunderekin eta mugimendu feminista eta emakume-elkarteekin koordinatuta, eta horiei aurre egiteko beharrezkoak diren ekintzak identifikatzeko.
- 3.- Irurako Udal honek konpromisoa hartzen du aurreko puntuan identifikatutako beharrei behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren programak/neurriak/zerbitzuak martxan jartzeko edo indartzeko.
- 4.- Horretarako, Irurako Udal honek ez du murrizketarik egingo ZI2leko aurrekontuetan eta beharrezkoak diren partidak handituko ditu.

5.- Indarkeria matxistei erantzuteko koordinazio protokoloa izan ezean, Irurako Udal honek egiteko konpromisoa hartzen du, herrialdeko/erkidegoko berdintasun instituzioekin batera eta egungo egoerara egokituta, mugimendu feministarekin, emakumeen kolektiboekin eta beste kolektibo sozial batzuekin batera modu parte-hartzailean.

6.- Irurako Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi / Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun - zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko, nagusiki COVID19ko krisiak eragina berezia izan duen esparruetan.

7.- Irurako Udal honek herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu eta dagokion lurralde mailan, indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu-sarearen funtzionamendu egokia, elkarlana eta koordinazioa indartuko du (osasun krisiari egokituta), beti ere, kontuan hartuz adin txikikoak eta biktimen seme-alabak.

8.- Irurako Udal honek pandemiaren garaian sortu ziren tokiko zaintza-sareak babestuko ditu, bai eta, oro har, herri-kolektiboen lana ere, indarkeria matxisten inguruko prebentzio eta sentsibilizazioko ekintza komunitarioak indartzeko eta bultzatzeko, egungo egoetara egokituta.

9.- Irurako Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako (eta egungo egoerari egokitutako) jabekuntza jarduerak abiatuko ditu, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko modu iraunkorrean: autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.

10.- Irurako Udal honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako eta egungo egoerari egokitutako sentsibilizazio eta formazio jarduera iraunkorrak abiatuko ditu emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baieztoko onespina lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, etab.

11.- Irurako Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko egungo egoerari egokitutako jarduera iraunkorrak martxan jarriko ditu besteren artean, omenaldiak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak edo jardunaldiak, kasu), kalte-ordainketak, akonpainamendu soziala, etab. Jaso

12.- Erakunde honetatik, hau da, kurako udaletik, borroka feministaren alde hartu dugu konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.

13.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.”

BOZKETAK: Mozio hau udalbatzak onartu du, 5 boto alde (EH Bildu) eta lau abstentzio (EAJ/PNV).

Ana zinegotziak adierazi du, halere, ez daudela Eh Bilduk esaten duenaren aurka, baina, azkeneko momentuan ez genuela bilerarik egin eta adostutakoa sartu dutela, alkateak esan ziola Udal Gobernuan zeudenek markatzen zutela denbora eta...gu zai egon direla, beraz adostutako sartu dute Eudelena irakurriko du:

Alkateak adierazi du, Udal Gobernuak gobernatzen duela, baina erabaki hauek bi norabideetan adostu behar direla noski, eta bi gauza ezberdin direla ulertzen duela berak.

Anak dio, adostasuna, mozio bakarra izatea izango zen.

Leticia zinegotziak galdetzen dio ea ez duen korreorik bidali eta azkenean Gorka alkateak hartzen du hitza.

Alkateak dio, deiak eta mezuak bi norabideetan eman daitezkeela.

Anak proposatzen du beraz, biak irakurri eta gero bat onartzea, Alkateak beraien prestutasuna adierazten dio.

Jarraian, EAJ/PNV udal taldeak mozio hau aurkeztu eta irakurri du:

“COVID-19ren pandemiak gure bizitza eta komunitateak kolokan jarri ditu, pertsona guztien osasunari, segurtasunari, ongizateari eta komunitate-bizitzari erronka handia jarriz. Mundua ulertzeko eta bertan egoteko dugun modua aldatzen ari da. Konfinamenduak, mugimendu murrizketek eta harreman-mugek agerian utzi dituzte, beren gordintasun osoz, indarkeria matxista mota desberdinei aurre egiten ari diren emakumeen egoera oso ahulak.

Krisi-testuinguru guztiak, pandemia honekin gertatzen den bezala, indarkeria matxista, ugaltzeko, biderkatzeko eta ugaritzeko haztegi bat dira. Indarkeria hori botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpen bat da, eta pairatzen ari garen krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ondorioz larriagotu egiten dira.

Pandemiak sortutako egoeran, arreta jarri behar dugu beren etxeetan, lanetan eta bizi-espazioetan bizirik irauteagatik indarkeriari aurre egiten ari diren emakume eta nesengan. Gizartearen aitopen eta elkartasun osoa merezi dute. Testuinguru horretan, isolamendua, babesgabetasuna eta ikusezintasuna saihesteko baldintza egokiak sortzeko lanean jarraitu behar dugu. Horregatik, aurten Euskal Herrian hildako lau emakumeak gogoratu nahi ditugu bereziki gaur, bi EAEn eta beste bi Iparraldean. Errealitate mingarri horrek gizarte gisa interpelatu egiten gaitu, lanean jarraitzeko eta mobilizatzeko konpromisoa hartzeko, horrela gerta ez dadin.

Hala ere, horrekin EZ DA NAHIKOA. Konpromiso politiko argia behar dugu, gizarteak erakundeei eskatzen baitie emakumeen aurkako indarkeria matxista lehentasun politiko bihur dezatela. Inoiz ez bezala zerbitzu publikoen eta erakundeen laguntza eta baliabide guztiak izateko, emakumeei beren askapen-, berreskuratze-, ahalduz- eta autonomia-prozesuetan laguntzeko garaia da. Ezinbestekoa da emakumeek duintasunez eta

segurtasunez bizitzea merezi duen bizitzarako oinarrizko eskubidea berreskura dezaten. Behar-beharrezko baldintza da, gainera, gure herriak eta hiriak bizikidetzan seguru, solidario eta berdinzalerako gune gisa indartu daitezen.

Herritarrengandik hurbil gaudenez, euskal udalok ahotsa jarri nahi diogu gure udalerriek emakumeekiko eta indarkeria matxistaren beste biktima batzuekiko duten elkartasunari. Gure erantzukizuna gure gain hartzen dugu, erakunde, kolektibo feminista eta emakumeen kolektibo, aditu eta gizarteko eragile guztiekin lankidetzan eta koordinatuta. Horregatik guztiagatik, Irurako Udalak konpromiso hau hartzen du:

- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jartzea, haien beharrak eta eskaerak entzun eta aintzat hartuta, babeserako, arretarako, erreparaziorako eta berriz ez gertatzeko bermerako eskubidea bermatuko duten politika berriak diseinatzeko.
- Behaketa hobetzea, indarkeria-egoeretan dauden emakumeen forma eta profil berriak hautemateko eta horien aurrean azkar jarduteko.
- Indarkeria matxistaren edozein formari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta eta laguntza-zerbitzuak mantentzea, hobetzea eta egokitzea, ikuspegi konpontzailearekin, erakunde bakoitzaren eskumenen esparruan.
- Emakumeen ahalduntzeari eta Gazteen artean indarkeriaren prebentzioari laguntzeko programak bultzatzea, etorkizuneko indarkeria-egoerak eragozteko funtsezko tresnak diren aldetik.
- Tokiko bizitzan berdintasun-programak zaintzea eta egonkortzea, emakume-kolektibo batzuen egoera ahulak areagotzeko desberdintasunak areagotzearen aurka borrokatzeko.
- COVID19aren krisiak emakumeen pobretzean eta kalteberatasunean duen eragina aztertzea, laguntza-jarduera espezifikoak diseinatu ahal izateko.
- Genero-ikuspegia txertatzea enplegu-galerak, diru-sarrerak eta krisiaren beste eragin negatibo batzuk arintzeko neurrietan, zeinak eragin handiagoa izan duten emakumeengan, eta oztopo diren indarkeria matxistako egoeretatik ateratzeko.
- Erakundeen, udalen, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzan eta koordinazioa eskatzea, baliabideak bermatzeko eta beharrezko ekimen guztiak abian jartzeko, beren eskumenen esparruan.

Halaber, gure bizilagunei dei egiten diegu mugimendu feministak Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko eguna dela-eta deitutako mobilizazioei atxikitzeko.”

Eta udalbatzak , aho batez, onartu du.

ZORTZIGARREN GAIA

“ABENDUAK 3 EUSKARAREN EGUNARI BURUZ ADIERAZPENA” EH BILDU ETA EAJ/PNV AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

EH Bildu udal taldeko Leticia zinegotziak aurkeztutako mozioa irakurri du:

“Abenduak 3 Euskararen Eguna

1.- Kokapena

Eusko Ikaskuntzak 1949. urtean Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3. egunarekin ospatzea erabaki zuen. Ordutik hona, urteak joan urteak etorri, euskararen hiztun komunitateak lortu du, estandarizazio prozesuari esker (1968), euskara hiltzoritik ateratzea.

Hala ere, urte luzetan izandako euskaltzale eta ekintzaile askoren ahaleginak alferrikakoak gerta daitezke azken urteotan euskarak sufritutako atzerakada.

Joan den urtean esaten genuen, inoiz ez bezala euskaldunok berariazko erakundeak geneuzkela Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, alde batetik, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bestetik, eta Nafarroa Garaian, azkenik. Egia da. Salatzen genuen ez geneukala hizkuntza politika bateraturik eta, tamalez, segitzen dugu hizkuntza politika bateraturik izan gabe.

Urte honetan, zoritxarrez, Covid-19 pandemiak mundu osoa eraso du. Alabaina, gehien sufritzen dutenak pobreak eta baztertuak izan dira. Hizkuntza gutxituek latz sufritzen dute pandemiak ekarritako ondorioak. Euskara zokoratua eta, kasu askotan, desagertu izan da. Euskararen lurraldetako erakunde publikoek, oro har, euskararen hiztun elkarteari bizkar eman diote eta arriskuan jarri dute urteetan egindako lana.

EH Bilduk ohartarazi nahi du azken urteotan euskararen egoerak sufritu duen atzerakada. Hezkuntzan, non ikasle askok euskararekiko zeukaten eremu bakarra, eskola, galdu duten. Hedabideetan, non euskara lotsagabeki zokoratu eta baztertua izan den. Kulturaren, ikuskizunetan, sortzaileen lanen hedapenetan, non euskararen hiztun elkartearen haustura eta sakabanaketa areagotu izan den. Administrazioetan, non itxialdiak administrazioetatik kanpo utzi izan du euskara, antza denez, euskarak ez du larrialdietako egoeratan balio.

Oraindik orain ez dakigu gure hizkuntzaren egoera noraino okertu den, eta oraindik okertu daitekeena. EH Bilduren ustez beharrezkoa da aztertzea hizkuntza egoerak jasandako kalteak zeintzuk eta zenbatekoak diren.

Horregatik, guztiagatik, aurtengo Euskararen Nazioarteko Egunari (abenduak 3) begira EH Bilduk euskararen biziberritzeko konpromiso irmoa hartua daukala berretsi nahi du. Ildo horretatik euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuak eta euren osotasunean garatuak izan daitezzen, ahaleginak eta bi egingo ditugu.

2.- Euskarari dagokionez, zer egin egoera larri honetan?

- **Gure herrietan** krisiak eragindako kalteak aztertu eta euskalgintzako eragileak eta elkarteak babestu eta biziberritzen lagundu.
- **Sareak** astinduko ditugu mobilizazio eta ekitaldien berri emanez, eta honako traolak erabiliko ditugu: #BiziEuskararenEguna #Euskarak365 #EuskaraBiziBerritu
- **Erakundeetan:**

- EUDELeK adierazpen bat aurkeztuko du; saiatu adierazpen horretan krisiak hizkuntzaren normalizazio prozesuan eragindako atzerapena islatzen.
- Behean erantsita duzun gure adierazpenak, erakundeari lotutako konpromiso zehatzak jasotzen ditu. Adierazpenen helburua konpromiso zehatzak jasotzea da, ez inora ez doazen hitz hutsak adostea.
- Horregatik erdibidekoak adostuko baditugu, guk proposatzen ditugun konpromiso zehatzak ERE onartzea bilatuko dugu.

3.- EH Bilduren Erakunde Adierazpena Euskararen Eguna dela eta

Zioa

Eusko Ikaskuntzak 1949. urtean Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3. egunarekin ospatzea erabaki zuenetik, urteak joan urteak etorri, euskararen hiztun komunitateak lortu du, estandarizazio prozesuari esker (1968), euskara hiltzoritik ateratzea.

Hala ere, urte luzetan izandako euskaltzale eta ekintzaile askoren ahaleginak alferrikakoak gerta daitezke azken urteotan euskarak sufritutako atzerakada.

Joan den urtean esaten genuen, inoiz ez bezala euskaldunok berariazko erakundeak geneuzkala Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, alde batetik, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bestetik, eta Nafarroa Garaian, azkenik. Egia da. Salatzen genuen ez geneukala hizkuntza politika bateraturik eta, tamalez, segitzen dugu hizkuntza politika bateraturik izan gabe.

Urte honetan, zoritxarrez, Covid-19 pandemiak mundu osoa eraso du. Alabaina, gehien sufritzen dutenak pobreak eta baztertuak izan dira. Hizkuntza gutxituek latz sufritzen dute pandemiak ekarritako ondorioak. Euskara zokoratua eta, kasu askotan, desagertu izan da. Euskararen lurraldetako erakunde publikoek, oro har, euskararen hiztun elkarteari bizkar eman diote eta arriskuan jarri dute urteetan egindako lana.

Oharrarazi nahi dugu azken urteotan euskararen egoerak sufritu duen atzerakada. Hezkuntzan, non ikasle askok euskararekiko zeukaten eremu bakarra, eskola, galdu duten. Hedabideetan, non euskara lotsagabeki zokoratu eta baztertua izan den. Kulturean, ikuskizunetan, sortzaileen lanen hedapenetan, non euskararen hiztun elkartearen haustura eta sakabanaketa areagotu izan den. Administrazioetan, non itxialdiak administrazioetatik kanpo utzi izan du euskara, antza denez, euskarak ez du larrialdietako egoeratan balio.

Oraindik orain ez dakigu gure hizkuntzaren egoera noraino okertu den, eta oraindik okertu daitekeena. Hori horrela, beharrezkoa da aztertzea hizkuntza egoerak jasandako kalteak zeintzuk eta zenbatekoak diren.

Horregatik, guztiagatik, aurtengo Euskararen Nazioarteko Egunari (abenduak 3) begira euskararen hiztun elkarteak hizkuntzaren biziberritzeko konpromisoa indartu behar du. Ildo horretatik euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuak eta euren osotasunean garatuak izan daitezzen, eragile guztiek ahaleginak eta bi egin behar dute.

Herri mugimendua izan da, eta izan behar du, euskararen normalizazioaren oinarri eta bidelagun: euskalgintza, Korrika, Euskal Herrian Euskaraz, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz, Kilometroak, Ibilaldia, Durangoko Azoka... Pandemiaren eraginez euskararen aldeko hainbat ekimen bertan behera uzteak edota kultura antolamenduak, ikuskizunak eta ekitaldiak egin ezinean izateak izugarritzeko kolpe latza euskara biziberritze prozesuan. Egoera honetan ikusten da ondoen herri mugimendua zein den beharrezkoa.

Aurtengo *Euskaraldiaren* ezaugarri bereizgarria *arigunearen* ideia da. *Ariguneek, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean.* Horrek izan behar du

gure aurtengo xedea eta eginkizuna; euskarari, euskararen hiztun elkarteari, bizitzeko funtzioak eta eremuak zabaldu eta berriak bilatu.

Erakunde adierazpen proposamena:

Hori horrela, Irurako Udal erakunde honek, honako konpromisoak hartzen dituela adierazten du 2020ko euskararen nazioarteko egun honetan:

- 1.- Covid-19 pandemiaren krisiak euskararen normalizaioan sorraraziko kalteak ebaluatu eta beraiei aurre egiteko kontingentzi plana egin.
- 2.- Erakundeak *ariguneak* bilakatu, euskara izan dadila euren ohiko hizkuntza bere jakinarazpen eta gainerako erakunde, hornitzaile zein elkarteekiko harremanetan.
- 3.- Gure administrazio publikoaren kontratuetan hizkuntza-irizpideak zehaztea eta ezartzea.
- 4.- Administrazio publikoen kontratazioetan ziurtagiriak —Bikain eta Bai Euskarari, besteak beste— bateratu eta indartzeko neurriak hartzea.
- 5.- Euskararen erabilera sustatzen duten hainbat tresna sustatzea, hala nola softwarea eta oinarritzko aplikazioak euskaraz, astialdirako IKT produktuak, .eus domeinua eta euskararen erabilera interneten.
- 6.- UEMA babestu, indartu eta zabaltzea.
- 7.- Urte anitzeko hitzarmenak sustatzea euskarazko toki-komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko.
- 8.- Euskararen erabilera eta presentzia bermatzea erabiltzen ditugun komunikabide guztietan.
- 9.- Kirolaren euskalduntze-bidean lan egitea, federazioarekin eta tokiko klubekin elkarlanean.
- 10.- Gazteentzako euskarazko aisialdi-zerbitzuak sustatu eta zabaltzea.
- 11.- Familia-eremuetan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.
- 12.- Migratzaileentzako laguntza-ildoak aktibatzea, euskara ikasteko eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera izan dezaten.
- 13.- Enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak aktibatzea, euskara laneko eta zerbitzuetako hizkuntza izan dadin.
- 14.- Jarduera arau-emailea garatzea, enpresetan euskara erabiltzeko planak indarrean jartzeko.
- 15.- Eremu guztietako eragileekin —hau da, enpresa-elkartekin, sindikatuekin, gremio-elkartekin, merkataritza-ganberekin eta beste hainbat erakunderekin— akordioak bilatzea, euskararen normalizazioa bultzatzeko lana har dezaten.
- 16.- Herriko gizarte eragile eta euskalgintzarekin batera elkarlanari eustea.”

BOZKETAK: Udalbatzak, onartu du, 5 boto alde (EH Bildu) eta 4 abstentzio (EAJ/PNV).

BEDERATZIGARREN GAIA

EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “2020 EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA” ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

EAJ/PNV udal taldeak mozio hau aurkeztu du:

2020KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Euskara, aurrerabide Gizartea euskaraz biziberritzea helburu

Inoiz inork pentsatuko ez zukeen eran jo gaitu gaitzak. Beste horrenbeste, gaitzaren ondorioek. Mundu osoa, gizarte guztiak, egitura guztiak, pertsona guztiok jarri gaitu geure benetako neurriaren aurrean, buruz buru. Cupidarik gabe utzi du agerian ahaztu nahi genukeen zerbait: zaurgarriak gara; zaurituta gaude.

Erantzukizunaren bidetik heldu diogu erronkari, denon indarrak batuz. Bai baitakigu ez dagoela beste irtenbiderik. Euskararen hiztun gizarteak ere sufritu du pandemiaren eragina, bereziki erabilera mailan. Hori dela eta, erakunde publikoen konpromisoa sendoa eta egindako lana handia izanagatik ere, ezin izan diogu nahi bezala erantzun.

Euskaldunok, baina, ezin dugu ahaztu badela funtsezko ekarpen bat, gizarte-ahalegin itzel eta miresgarri horren osagai ezinbestekoa eta geure esku soilik dagoena: euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari; euskaraz egin behar dugu ilunpetik argira eramango gaituen bidea; euskaraz sendatuko gala, euskaraz sendatuko dugu geure gizartea; euskaraz besarkatuko ditugu mundu osoko gizakiak. Bat garelako. Euskaraz bat mundu osoarekin.

Horixe da euskaldunok -neurri batean edo bestean euskaraz bizi garen munduko herritarrok, alegia- euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiliz giza garapenari egiten diogun ekarria. Gizarte kudeaketa aurreratuari gaineratzen diogun balio erantsia.

Banaka heltzen diogu, jakina, euskaraz gero eta gehiago bizitzeko konpromisoari. Nahitaezko zutabea baita norberaren eginahal hori edozein aurrerabidetan, oso bereziki gizarte prozesu konplexuetan, eta horixe da euskara biziberritzea helburu duena ere: gizarte prozesu konplexu bat, ertz eta osagai ugari duena. Ongi asko dakigu hori mundu osoko euskaldunok.

Badakigu, besteak beste, euskaldunok euskararen hiztun gizartea osatzen dugula, eta Euskaraldian norberaren erabakimenetik abiatzen dela euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzerakoan inguruan hainbatetan sortzen zaizkigun oztopoak gainditzeko bulkada.

Baina badakigu, era berean, ezinbestekoa dugula elkarrengana biltzen gaituen bulkada ere. Norabide biko bektorea baita euskara eta euskaldunok lotzen gaituena: euskarak herri egiten gaitu; euskal hiztunon komunitateak egiten du euskara orainaren eta etorkizunaren hizkuntza.

Bide horretatik heldu zaizkio beti euskarari aurrerapauso behinenak: norberaren eta gizartearen konpromisoak sendo uztartzetik; unean uneko beharrezane euskaraz erantzuteko erabaki sendotik; etorkizunerako bidea euskaraz zolatzeko euskal instituzioek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik.

Euskaraldiak eskaintzen digu aurtan berriz ere zailtasunak aukera bilakatzeko

abagunea, krisia aukera bihurtzeko lanabesa. Ingurumari aldrebasean dator, ezbairik gabe, aurtengoa, eta horrek areagotu egingo du guztion eta bakoitzaren konpromisoaren balioa, administrazio eta erakunde publikoena barne.

Aurtengoan, balio berezi batzuek apainduko da ahoa bizi, belarria prest eta bihotza kartsu dugun guztion ekimena. Aurtengoan, inoiz baino erabakigarriagoa izango da euskararekiko gertutasuneko keinu praktiko oro, euskal hiztunongandik zein euskararen zabalkundean erdaretatik lagundu nahi dutenengandik datorrela ere.

Esanahi berezi batez jantziko da aurten, ezinbestez, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko ahalegina: egokitu zaigun ataka larritik ateratzeko erabakiari, euskaraz ateratzearen ezinbestekotasuna erantsiko diogu euskal hiztun nahiz euskararen lagun orok.

Izan ere, bagenekien euskaraz zetorrela geroa, euskaraz ere mintzo dela etorkizuna eta aurten beste zerbait ikasi dugu: egoera zailetatik ateratzeko eginahalean lagungarri dugu euskara, bidelagun ezinbestekoa. Krisialditik sendoago ateratzea helburu dugun honetan erabil dezagun euskara ere aurrera egiteko lanabes gisa.

Euskaraz biziberritu behar dugulako geure gizartea.
Euskararen ahotsa zor diogulako munduari.
Euskaraz garelako munduko herritar.
Euskara aurrerabidea delako.

BOZKETAK: Udalbatzak, AHO BATEZ onartu.

HAMARGARREN GAIA

EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: "UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSARI ETA ZORPETZEARI BURUZKOA" ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Eh Bilduk aurkeztutako mozioa irakurri du Gorka alkateak, honakoa da:

"MOZIOA, UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSARI ETA ZORPETZEARI BURUZKOA

COVID-19 koronabirusak mundu osoan eragindako osasun- eta ekonomia-krisiak pandemiak bereziki kaltetutako zerbitzuetan gastu handiagoa eragin du, bai eta zerga itunduen bidezko diru-bilketa txikiagoa ere.

Udalek beren aurreikuspenak alde batera utzi dituzte eta beste lehentasun eta behar batzuei aurre egin behar izan diete, hala nola: herritarren osasun-segurtasuna bermatzeko neurriak hartu, garbiketa-zerbitzu gehigarriak ezarri, gizarte-politiken esparruan sortutako behar berriei erantzun, udal-merkataritza eta -zerbitzuak babestu...

Gainera, udalen zerbitzu asko bertan behera uzteak, alarma egoeraren ondorioz, galera

ekonomikoak eragin ditu udaletan.

Une honetan, koherenteak izan behar dugu deskribatutako egoera berriarekin, gastu eta diru-sarrera handienak arintzeko eta euskal ekonomiaren susperraldia eta dinamizazioa bultzatzeko.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, irailaren 30ean bilduta, 2020an % 3,5eko defizita onartu zuen euskal erakundeentzat, eta % 3koa 2021erako (% 2,2 Eusko Jaurlaritzarentzat eta % 0,8 aldundientzat). Akordio horretan, lehen aldiz, foru-aldundiei zorpetzeko gaitasun propioa aitortzen zaie.

Horrela, Ogasun Ministerioarekin uztailean itxitako akordioari (defizitaren % 2,6 hitzartu zen), foru aldundientzako berariazko % 0,9 gehitu zaio orain, eta % 3,5 euskal erakunde guztientzat 2020an.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburuak adierazi du zorpetze-eragiketen kargurako finantzaketa handiagoa eta, ondorioz, epe luzeko zorra handitzea zentzuz onar daitekeela, Euskal Autonomia Erkidegoaren finantza- eta kaudimen-egoera kontuan hartuta, eta zor publikoaren maila autonomia-erkidego guztietako txikienen artean dagoela BPGd-ari dagokionez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen udalei % 20 murriztuko zitzaiela azken bi hiru hilabeteetan 2020rako bideratuko zen foru funtsa. Baina 2020ko urriaren 15ean egindako Finantza Kontseiluan adierazi zen bilketa % 13,3 jaitsiko zela.

Euskal erakundeen interesen aldeko testuinguru horretan, inoiz baino beharrezkoagoa da Gipuzkoako udalak udal-aurrekontuen finantza-jarraitutasuna erraztuko duen akordio batean integratzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak zorpetzeko duen ahalmenaren bidez. Horrek balioko luke Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik (FOFIM) datozen diru-sarrerak ez murrizteko ekitaldi honetan eta hurrengoan, COVID-19k sortutako egungo krisiaren bi urte gogorrenetan. Udalek Aldundiarekin duten zorpetze-formula horren bidez, udalek itzuli egingo lukete 2022an eta 2023an itundutako zergengatik izandako diru-sarreraren murrizketari dagokion zatia. Bizkaiko eta Arabako foru erakundeek dagoeneko iragarri duten formula da, eta gure lurraldera zabaltzeko eskatzen dugu.

Horrela, datorren urteko udal aurrekontuen plangintza abiatuko litzateke, ziurtasun- eta egonkortasun-bermeekin, eta, zalantzarik gabe, gure hiriko herritarren onerako izango litzateke, egungo egoera ekonomiko eta sanitarioa gehien pairatzen ari diren gizarteko sektoreekiko konpromiso publikoak indartuz.

Horregatik, Irurako Udalbatzak honako hau erabaki du:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea azaroan egin beharreko Foru Funtsaren ordainketa Finantza Kontseiluan 2020ko urriaren 15ean informatutako aurreikuspenekin bat etorritik egin dadila.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, zorpetzeko duen gaitasuna kontuan hartuta, udalek, hala nahi badute, 2020rako FFFMren hasierako aurreikuspenetan dagokien guztizko zenbatekora arte eska dezatela. Udalek 2022an eta 2023an konpentsatuko dizkiote zenbateko horiek Foru Aldundiari.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, hala nahi duten udalekin batera, Itunaren Batzorde Mistoaren esparruan itundutako zenbatekoaren % 40 gutxienez zorpetzeko ahalmena izatea.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eudeli erabaki honen berri ematea.”

**Ana Leunda, EAJ/PNV udal taldeko bozkatu aurretik adierazpen bat irakurri du:
“UDAL FORU FUNTSA ETA ZORPETZEAREN INGURUAN**

2020ko martxo bukaeran egindako aurreikuspenetan zerga bilketa, aurrekontuaren aldean, %20 eta %25 tartean erori zitekeela aurreikusi zen.

Martxoaren aurreikuspenak egitearen zailtasunaz jabetuta, 3/2020 Foru Dekretu-Arauean, 1.3 artikulua bitartez, honako hau ezarri zen: “Gipuzkoako Finantzen Kontseiluak proposatuta, azaroko konturako ordainketen zenbateko berriz berrikusi ahal izango da, Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpenen aurrelikidazioan oinarrituta.

2020ko urriaren 15ean egindako Euskal Finantza Kontseiluan 2020rako murrizketaren aurreikuspena %14,5ean adostu zen.

Hori honela, urriaren 19ko Gipuzkoako Finantzen Kontseiluan (non alderdi politiko ezberdinetako udal ordezkariak dauden), aho batez adostu zen 2020ko azaroko ordainketaren zenbatekoa errebisatzeko, Euskal Finantza Kontseiluan adostutako aurreikuspenetara egokitzea, hau da, urtearen zerga bilketa %14,5 aurreikusiz, oraingo hiruhilekoan erregularizatzea urte osoko ordainketa. (107 M/€ gutxiago izango zirela aurreikusi bazen, 85M/€ gutxiago izango direla da oraingo aurreikuspena), beraz 22M/€ horiek azaroko ordainketan erregularizatzea.

Bilera horretan bertan, Foru Aldundiak, Eusko Alderdi Jeltzaleak euskal erakundeek gizarteak dituen beharrei indar handiagorekin aurre egin ahal izateko lortutako defizit eta zorpetzearen akordioaren emaitza udalekin elkar banatzeko konpromisoa azaldu zuen, beti ere, gure ereduaren proportzioak jarraituz, hau da %60 diputazioarentzat eta %40 udalarentzat. Gaur egun bizi dugun egoera desegonkor honi erreparatuz, otsailean, 2020 urteko likidazioa egiterakoan, Gipuzkoako Finantza Kontseiluan aztertuko dira likidazioaren emaitza eta ondorioak.”

Eta udalbatzak , 5 boto alde (EH Bildu) eta 4 aurka (EAJ/PNV), onartu du.

HAMAIKAGARREN GAIA

**EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA:
“MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AURREAN ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA EGITEKO PROPOSAMENA” ONARTZEA, HALA
BADAGOKIO.**

Eh Bilduk Mozio hau aurkeztu du eta Gorka Alkateak irakurri du:

"MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIERAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EGITEKO PROPOSAMENA

2020ko azaroaren 13an, Marokoko Indar Armatuek nahita urratu zuten 1991tik indarrean dagoen Marokoko Erresumaren eta Fronte Polisarioaren arteko Su Eten Akordioa.

Marokoko Erresumak Guerguerateko legez kanpoko pasabidera indar militarrek bidali zituen, duela lau astetik eremu horretan manifestazioak egiten ari ziren saharar herritarrak erreprimitzera.

Marokok 2001ean ireki zuen pasabide hori, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Nazio Batuen Bake Akordioak (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarrek Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea debekatzen dute.

Indar marokoarren erasoaldiak eta Fronte Polisarioak saharar populazio zibilaren defentsan emandako erantzun legitimoak harresian zehar hainbat liskar eragin ditu. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Presidenteak, adierazpen baten bitartez amaitutzat eman du Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak 1991n sinatutako su-eten konpromisoa.

Gertakari horien aurrean Irurako Udalak, Sahara Euskadi Mugimenduarekin eta Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera:

- BERRESTEN DUGU zalantzarik gabeko elkartasuna diogula saharar herriaren eta haren legezko ordezkari Fronte Polisarioaren borrokari.
- Marokoko Erresumari EGOZTEN DIOGU 1991n Su-Etena apurtu izana, eta sortu den eta Magrebeko eskualde osora zabal daitekeen ezegonkortasunaren erantzukizuna.
- MINURSOri eta Nazio Batuei eremuan segurtasuna eta sahararren giza eskubideen zaintza berma dezatela ESKATZEN DIEGU; eta, besterik gabe, autodeterminazio-erreferendumaren bidez, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bidezkoa eta behin betikoa susta dezatela,.
- Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiarengatik dituen erantzukizunak bere gain har ditzala ESKATZEN DIOGU; izan ere, Lurralde Ez-autonomia da, Marokok legez kanpo okupatua, NBERen agindupean, eta gatazkan dauden bi aldeak Genevako Hitzarmenaren sinatzaileak dira.
- Espainiako gobernuari Mendebaldeko Sahara "de iure" administratzen duen potentzia gisa duen erantzukizuna bere gain har dezala EXIJITZEN DIOGU; eta horren arabera joka dezala, autodeterminazio-erreferendumaren antolaketan eta Saharako biztanleria zibilaren babesean parte aktiboa izanik

- Sahara Euskadi Mugimenduak Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoa babesteko deitzen dituen mobilizazioetan parte hartzera GONBIDATZEN ditugu euskal herritarrek.”

Eta udalbatzak, aho batez, onartu du.

HAMABIGARREN GAIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOTENAK JAKINARAZTEA.

Ez da aurkeztu ezer.

HAMAHIRUGARREN GAIA

GALDE -ERREGUAK.

Ana Leunda zinegotziak 2020/218 alkate dekretuaren erreferentzia egiten du, eta galdetzen du bi udal langileen aparteko orduak ordaintzea erabakitzen dela eta Idazkari Kontu-hartzailearen txosten bat dagoela esanaz, haurren zaintzagatiko murrizketan dagoen langileari aparteko orduak ordaintzea ez dela bateragarri. Beraz, jakin nahi dugu, zein pausotan dagoen ordainketa eta ordainduz gero, Udalak izan ditzakeen ondorioak.

Alkateak adierazi du, Idazkariaren aldetik ez duela ondorioen inguruko informaziorik, eta erabaki horretan dagoela, orain arte sartutako orduz gaindiko orduen xehetasuna eta interesatuarekin elkartu ondoren, Udalak adostu du, orain arteko ordu extrak diruz ordainduko zaizkiola, eta hemendik aurrerako ordu horiek, bere ohiko jarduneko ordutegiarekin konpentsatuko dituela.

Idazkariak dio, hasieraz behintzat, ez duela inongo eraginik ikusten Udalarentzat, baina praktika ez da oso ona.

Anak adierazten du, hori zela jakin nahi zutena.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago “www.irura.eus” helbidean.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:15an eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA